

Mugikortasun eta irisgarritasun ekintza berriak proposatu ziren

Eguraldia zela eta, jende gutxi hurbildu zen Villa Mirentxura

Asteazkenean, Tokiko Agenda 21eko herritarren foroko bileran egin zen, honetan mugikortasuna eta irisgarritasuna jorratu zen. Jende kopuru urria gerturatu zen Villa Mirentxura, izan ere, eguraldiak ez baitzuen laguntzen.

Honetarako, abenduaren 5eko bileran herritarrek eskatu zuten bezala, udaleko teknikoak, Jose Manuel Eliceigi udal arkitektoa, Ana Sanz obrak arloko arduraduna eta Borja Barrutiabengoa arkitekto teknikoak eta Hirigintza, obrak eta hirikudeaketako batzorde buru den Iñaki Mugika egon ziren bertan aurrera eraman diren ekintzak eta udalak dituen proiektuak azaltzeko, hala nola, Loidi-Barreneko edo Okendo-ko proiektuak.

Galderak eta erantzunak

Herritarren bidegorria, aparkalekuen arazoa, eskailera

mekaniko eta igogailuak eta hiribusari buruzko galderak erantzun zituzten udaleko ordezkariak jarraian.

Esate baterako, Iñaki Mugikak hiribuseko zerbitzua Foru Aldundiko 2009. urteko aurrekontuan sartuko dela eta, beraz, Udalak epe ertainera zerbitzua martxan egotea espero duela aipatu zuen.

Ostean, gaia hauek eta Tokiko Agendaren planean dauden beste hainbat ekintza aztertu ziren lantaldeetan, baita proposamen berriak egin ere.

Bozkatutako ekintzak

Taldeek bere ideiak azaldu eta proposamenen bozketa egin zen. Era honetara, garraio publikoen eskaintza hobetzea, herriaren erdiguneko oinezkoentzat jartzea, ospitale-gunera autobus zerbitzua edo eskailera mekanikoen ordezkari mekanikoak ezartzea izan ziren bozkatuenak. •



Villa Mirentxura hurbildu ziren herritarrek bidegorriko ibilbidearen proiektua mapa gainean ikusteko aukera izan zuten.



Hiribuseko zerbitzua epe ertainera ezarriko dela adierazi zuen Iñaki Mugikak Tokiko Agenda 21eko bileran.



Kirol apustuak egiteko marka berria martxan dago herriko Jackpot aretoan /3

KIROLA 6

Herriko judokak garaile izan dira berriro, hainbat domina eta gerriko eskuratu dituzte




Okindegien kanpainako bigarren zozketako saria Hernanin geratu da /3

ASMAE



Lehen Arbil, orain Asmae helbide berrian!

Llugo Loloia 2 • Lasarte-Oria
Tel.: 943 367193



ADURIZ DE LASARTE S.A

Loidi kalea 3 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 361278

Zorion-agurrak



Maite

Zorionak senarra eta semearen partetik. Eta orain arte bezala jarraitu dezazula. Muxu asko.



Haizea

Zorionak!!!! Bost muxu handi-handi etxeko partetik.



Naroa

Zorionak printzesa! 8 muxu goxo eta handiak. Etxeko partetik.



Judit

Zorionak pitxi. Txokolatezko 3 musu handi, izebaren, lehengusuen eta Garaziren partetik.



Eusebio eta Mari Luz

Zorionak aitona eta amona! Urte askuan horrela jarraitu! Eneritz eta Eñauten partetik.



Ekaitz eta Josu

Zorionak bikote. Urte askuan eta merienda zuen kontu. Muxuak eta ondo pasa familiaren partetik.



David

Zorionak pottoko. Sei muxu goxo, Borja eta gurasoen partetik.



Odei

Zorionak, ondo pasa zure 3. urtebetetzean. Asko maite zaitugu, 3 muxu handi, Urko, aita eta ama.



Libe

Zorionak sorgintxo!! Enarak, aita eta ama bidaltzen dizugu muxu handia zure 1. urtebetetzean.



Xabi

Zorionak, dagoeneko hamahiru dira. Ondo pasa! Gurasoak, Josu eta Ane.

Guardiak

Ostrala, 12

Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Larunbata, 13

Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Igandea, 14

Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Astelehena, 15

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Astearte, 16

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Asteazkena, 17

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Osteguna, 18

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Telefonoak

Osasuna / Larrialdia

Osasun Zentroa ... 943 007960
DYA ... 943 370000
Gurutze Gorria ... 943 363953
Udaltzainak ... 943 362442
Ertzaintza ... 943 288888
SOS Deiak ... 112

Udala

Erregistroa ... 943 376055
Euskarako Zerbitzua 943 376184
Kiroldegia ... 943376182
Kulturetxea ... 943376181
Bakezko epaitegia ... 943371629
Zerbitzu Sozialak ... 943376179
Zentro Zibikoa ... 943363958
KIUB ... 943361605
Udal euskaltegia ... 943361621
Obrak eta zerbitzuak ... 943 376180

Jaiotzak

Lucas Caballero Gago,
abenduaren 4ean

Lander Zabala Ugartemendia,
abenduaren 4ean

Unax Sánchez Sánchez,
abenduaren 2an

Heriotzak

Nemesio Peña Iradi,
abenduaren 6an 77 urte zituela

Gumersindo Ardanaz Ardanaz,
abenduaren 3an 90 urte zituela

Azoka txikia

Salerosketak

• Pisu bat alokatzen da Lasarte-Oriako erdigunean. Abala eskatzen da. Tel.: 686 674 552.

• Hamar urteko neska batentzako, bizikleta bat erosi nuke. Tel.: 943 366359 Maite

• Bigarren eskuko teklatu bat erosiko nahi dut: sentsibilitateduna, kontrapixudun tekladuna eta gutxienez bost "oktava" dituen. Goizetan deitu 943 36 78 71 telefonora, Amaia.

Lan-eskariak

• Klase partikularrak ematen ditut, matematika eta estatistika, edozein mailan, esperientzia handia. Tel.: 646 717 676.

Lan-eskariak

• Neska bat eskaintzen da haurrak, adineko pertsonak zaintzeko, garbiketarako. Interna moduan edo orduka. Tel.: 620 036 888.

• Neska arduratsu bat eta lane-rako gogoarekin eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko, garbiketarako eta haurrak zaintzeko. Interna moduan edo orduka. Tel.: 690 304 683.

Bestelakoak

• Negozio informatikoa traspasatzen da. Tel.: 943 36 08 32.

Oharretarako:

943 366858 • Geltoki kalea 4

txintxarri@ttakun.com • txintxarri@ttakun.com

www.txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com



Gazte Informazioarako Bulegoa

Manuel Lekuona kulturetxea • Tel.: 943 376181

Parke eta lorategietako bi teknikari Donostiako Udalerako (epe berria)

Donostiako Udalean Mugikortasuneko erdi-mailako bi teknikariren lanpostua betetzeko deialdia. Bete beharrekoak: nekazaritzako edo Basogintzako ingeniari titulua, edota Ingurumen Zientzietako, Biologiako edo Mendiko Ingeniaritzako lehen zikloko titulua izatea eta 3. hizkuntza-eskakizuna. Horretarako azken eguna 2008ko abenduaren 26a da. Informazio gehiago nahi izanez gero, jo Donostiako Udalera, Ijendea 1. Bestela telefonoz deitu 943 481000 zenbakira; faxa: 943 426781; helbide elektronikoa: udala_erregistroa@donostia.org eta web orrialdea: http://www.donostia.org.

Euskararen arduradun-lanposturako teknikari bat Oñartzungo udalean

Euskararen Arduradun lanposturako Teknikari bat hautatzeko lehiaketa Oñartzungo Udalean. Bete

beharrekoak: Gizarte Zientzietan Lizenziatura-titulua izatea eta euskarako 4. hizkuntza-eskakizuna ere izatea. Izen emateko azken eguna 2008ko abenduaren 26a. Informazio gehiago nahi izanez gero, jo Oñartzungo udalera (Done Eztebeko Plaza, 1. zenbakia) edo deitu telefono honetara: 943 490142; faxa: 943 491405. Web orrialdea: https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/ga/2008/11/20/e0812889.htm.

Oñartzungo instalatzaile argiketari ikastaroa langabetuentzat

Oñartzungo instalatzaile argiketari ikastaroa, 210 ordukoa eta praktikak enpresetan. 120 ordu. Ikastaroa 2009ko urtarrilaren 12an hasiko da eta maiatzaren 22an bukatu. Parte hartzeko langabetua izan behar da eta plazak bete arte dago lekua. Informazioa IES Hernani, Agustín Iturriga-Karmelo Labak ikastetxean, Santa Barbara z/g; tel.: 943 551958 eta 943 551188; faxa: 943 552271; e-maila: jezquierro@hernanibhi.com.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Kirol apustu marka berria martxan dago Jackpot aretoan

TXINTXARRI

Jackpot joku aretoan kirol apustuak egiteko marka berria, Garaipen Victoria Apustuak, aurkeztu zuten Genaro Arroyo eta Mariam Vicente aurreko ostiralean. Aurkezpenean Pedro Torrecilla, Euskadiko joku aretoen elkartearen lehendakaria eta Garaipen Victoria Apustuak taldeko ordezkariak egon ziren, Mikel Diez, Koldo Ponzas eta Jon Atorrasagasti.

Apustu marka honek aurreko urtean Euskal Autonomi Erkidegoan (EAE) kirol apostuak kudeatzeko lizentzia eskuratu zuen eta EAEn 66 egoitza desberdinetan sartu nahi dute apustu marka hau. Aurreko astean, Arabako lehena aurkeztu zuten Gasteizen eta Gipuzkoako lehena Lasarte-Oriako Jackpot egoitzan aurkeztu zuten. Gipuzkoako lehen apustua ere bertan egin zuen herriar batek, 0-3 Errealaren alde Alicanteren aurka koto partidan.

Zuzeneko apustuak

Apustuak egiteko aukera zabala eskaintzen du marka honek. Kirol guztiak jasotzen



Zumaburuko Jackpot joku aretoan kirol apustuen marka berria, Garaipen Victoria Apustuak, aurkeztu zuten.

ditu, baita zaldien eta galgoen lasterketak ere. Jon Atorrasagastik azaldu zuenez, "marka honek apustuak egiteko aukera berri bat eskaintzen du, zuzeneko apustuak".

Zaldi karrerak, estropadak, futboleko partidak, saskibaloia edo pilota partidak jokatzeko bitartean apustua egiteko aukera eskaintzen dute. Apustu guztiak enpresaren aurka egiten dira, gutxi-

neko apustua 0,20 eurotako da, gehienez 100 eurotakoak eta apustu arrunta euro batekoa da.

Abantailak

Atorrasagastik Garaipen Victoria Apustuak markak beste kirol apustu markeekiko desberdintasunak eta abantailak zehaztu zituen ostiraleko aurkezpenean: batetik, apustu konbinatuetan emaitza guz-

tiak asmatu ez arren, hau da hirutik bi asmatuz gero kobratzeko aukera eskaintzen du; bestetik, konpetentziak eskaintzen ez dituen bi kirol mota eskaintzen ditu: zaldiak eta galgoetako lasterketak; sariari dagokionez, egoitzan bertan metalikoan kobratu daiteke, 300 euro baino gutxiagoko sariak; eta azkenik, bezeroari arreta pertsonalizatua eskaintzen zaio. •

ATXILOKETA

Aitzol Iriondo lasarteoriarra atxilotu dute

Aitzol Iriondo, Eneko Zarrabeitia eta Aitor Artetxerekin batera atxilotu zuten astelehen arratsaldean, Gerden, Frantziako Poliziak eta Guardia Zibilak elkarlanean. ETAko buruzagitza militarreko kide izatea egozten diote Aitzoli.

LEHIAKETA

Errege Magoentzako Gutunen I. Lehiaketa

Lasarte-Oriako Udaleko Gazte-ria eta Festetako sailak herriko bost eta zortzi urte bitarteko neska eta mutilentzat Errege Magoentzako Gutunen I. Lehiaketa antolatu du. Udaltetik helarazi duten informazioaren arabera, lehiaketa honen helburua "gaztetxoek beren ametsak, ilusioak, nahiak, eta abar azaltzea da".

Lehiaketak oinarri batzuk jasotzen ditu, besteak beste: eskutitzak euskaraz edo gaztelaniaz idatzi ahal izango dira, baina, gehienez ere mila karaktere izan beharko dituzte eta antolatzaileek parte hartzaile bakoitzeko gutun bakarra onartuko dute. Gutunaren amaieran haur bakoitzak bere izen-abizenak, adina, helbidea eta harremanetan jartzeko telefono zenbakia jarri beharko ditu.

Gutun guztiak Lasarte-Oriako Gazte Informazio Bulegoan, kulturetxean, abenduaren 31a bitartean jasoko dituzte.

Zozketa

Okindegien kanpainako bigarren zozketako saria Hernanin geratu da

San Markos Mankomunitateak hamar udalerrietako okindegiaren burutu duten kanpaina abenduaren 4ean egindako zozketarekin amaitu da.

Parte hartu duten establezimenduetan jasotako txartel guztiak sartu dira bigarren zozketa honetan, eta irabazleak ondorengoak izan dira: Maria Pilar Retegi Retegi, hernaniarra eta Hernaniko Zikuñaga auzoko "Autoservicio Laura", irabazleak ogia erosi zuen establezimendua.

Irabazleek Donostiako Arzak jatetxean bi lagunentzako afaria irabazi dute. Saria erakargarria den arren, "ez dezagun ahaztu helburu nagusia plastikozko poltsak kontsumoa arras murriztea dela, eta horretarako, gure poltsa eramaten jarraitu behar dugula etxetik", gogorazi nahi dute Mankomunitatetik.

Partehartze zabala

Okindegietako kanpainak oso harrera ona izan duela jakinarazi dute San Markosetik: "Oso harrera ona egin diote kanpainari ogia saltzen duten establezimendu zein bezeroek". Parte hartzeari dagokionez, "erosleek partehartzea oso handia izan da. Izan ere, 192.000 partaidetza-txartel baino gehiago jaso dira kanpainan parte hartu duten 316 establezimenduetan".

Antolatzaileek kanpainan parte hartu duten guztiak eskertu nahi dituzte: "gure esker onik zintzoena kanpainan parte hartu duten establezimenduei eta ogia erosteko plastikozko poltsak erabiltzeari utzi dioten bezero guztiei. Hondakin gutxiago sortzeko pizgarria da saria, prebentzio-lan hori baita San Markos Mankomunitatean sustatutako jardueraren horren eta beste askoren ardatz nagusia". •



Okindegien kanpainako arduradunak bigarren zozketa egiten.

JARDUNALDIAK

"Eguberri ekologikoak" harrera ona

Eguberri ekologiko baten alde jardunaldiak lehengo astean burutu ziren kultur etxean. Nahiz eta eguraldiak ez lagundu, Ingurumen, Kontsumo, Merkataritza eta Osasun sailako ordezkari den Gurutze Irisarrik hitzaldietara lasarteoriar ugari hurbildu zela adierazi digu.

Nekazaritza eta sukaldaritza ekologikoa, joko eta jostailuen kontsumo arduratsua eta Eguberriak ingurumenerako modu iraunkorragoan ospatzeko alternatibak erakutsi dituzte hitzaldietan eta Irisarrik azaldu digunez, "herriarrek programazioa gustuko izan dute."

Alde teorikoa entzuteaz gain, nekazaritza ekologikoko produktuak dastatzeko aukera izan zuten herriarrek. Gainera, gerturatu zirenen artean produktu ekologikoak dituen saski baten zozketa egin zen, Mari Sanchez Iñigo herriarri egoitu zitzaion. •

VII. Multimusikalaren CDa salgai

■ Lasarte-Oriako hainbat tabernatan dago salgai eta 5 euroren trukean eskuratu dezakezue

TXINTXARRI

7. Multimuskala abenduaren 27an ospatuko da, baina giroan sartzeko antolatzaileek CD bat argitaratu dute jaialdian parte hartuko duten herriko, zein kanpoko taldeen abestekin, Gaueko Itzalak, Ostikua potrota, Yaw edo Musikberberena, esate baterako.

Gainera, lan honetan jaialdirako propio egin duten kantu bat ere aurkitzen da Multimuskala, eta bertan antolatzaileek dioten bezala "norbaitek galdetzen badu zer den Multimuskala, Lasarte aldera etorri eta berak esplikatu dezala!"

Antolatzaileek Cd honen karatulan dioten bezala, "urte luze hauetan jaialdia aurrera ateratzen lagundu dieten guzti horiei eskaini nahi dizuegu lan hau: Txorimalon izan diren herriko gazte guztiak, jo ta su lanean, gelditu gabe, sator atomikoz osaturiko ejertzitza bailitza, zuek gabe ezinezkoa litzateke. Urte hauetan jaialdian parte hartzen izan diren lagunak, diren herrikoak direla, gure mezua ulertu eta gozatu dutelako, gure egia, bizi daitekeela erakutsiz. 7 urte luzetan

parte hartu eta askotan fijo bihurtu arte errepikatu duzuen taldeak, Haritz Sound System, Bad Sound System, Stamer, Donostiako Break dantzariak, Gasteizko kapoeira egitera etorri ziren haiek, hainbatetan graffitiak egin dituzuen artista anonimoak, era guztietako musika taldeak (luze joko liguke denak aipatzeak, izan ere, 7 urtetan 80 bat taldek parte hartu dute) urte guzti hauetan parte hartu duten tabernei, Xirimiri, Ilargi, Ostatu-berri, Udaberri, Txepetx Kabi, Txiki jai, Insausti, Jalgi, Sustrai, Obelix, Mendi Rock, Siglo XX, Garai..."

Multimuskaleko Cda Durangoko azokan egon zen salgai. Oraindik eskuratu ez baduzue, herriko tabernatan erosteko aukera daukazue. Artizarren, Jalgi kafe-antzo-kian, Udaberrin, Xirimiri elkarteak, Sustrain, Obeliken eta Ilargin aurkituko duzue. Hau guztia 5 euroren truke.

Egitaraua eta berrikuntzak

Asteleheneko zenbakian Multimuskalar buruzko informazioa gehiago eskainiko dizuegu, hala nola, egitaraua eta berrikuntzak. •



Gazteen aisia

Gazteentzako gaueko aisia ekimenak Ostarte Gazte taldearen eskutik

Ostarte Gazte Taldeak larunbata honetan 14 eta 17 urte arteko gazteentzako aisia proposamena aurkeztzen du. Gazte Taldearen ideia jokoetan oinarritutako aisia eskaintzea da, hala nola, bideo-jokoak, mahai-tenisa, futbolina edo mahai jokoak.

Era honetara, aukerazko aisia ekimen honetan gazteek une dibertigarri eta atsegina igaro ahaliko dute, 22:00ak eta gaueko hamabiak artean, Zumaburuko eliza azpiko lokalean.

Jarraipena

Gaueko ekitaldien programak iaz hasitako bidea jarraitzen du. Ostartek egun gazteentzat herrian dagoen gaueko aisialdi eskaintza urria ikusirik, taldeak Lasarte-Oriako gazteentzako gunea eskaintzen du, non giro atseginean eta onuragarrian egon daitezten.

Honen erakusle, duela hilabete batzuk Sasoetak



Ostartek antolatuta, areto-futbol partidak jokatu ziren duela hilabete batzuk.

ikastolan egindako areto-futbol partidaren gaueko ekintza dugu, bertan 60 gazte baino gehiago bildu ziren.

Egutegia finkatu

Era berean, Ostarte Gazte Tal-

dearen nahia ekintza egutegia egitea da. Honetan gazteen aukerazko aisia eskaerei erantzuna ematen saiatuko dira, hauen zaletasunei ongi dagokienez ekintzak zehaztu eta antolatu ostean. •

Manifestazioa

Manifestazioa krisiaren eraginaren kontra eta langileen alde

LAB sindikatuak, krisiak lan-gileengan eta herritarrengan duen eragina salatze, manifestaziorako deialdia egin du bihar larunbaterako. Manifestazioa Andoaingo Zumea Plazatik abiatuko da eguerdiko 12:00etan. "Krisi erreala herritarrok sofrizten dugu eta honen aurrean erantzun sindikala eta soziala indartu behar da guztion aldarrikapenak defendatzeko, hau da, lana eta aberastasunaren banaketa gehiengo sozialaren interes orokorra bermatzeko".

Sindikatuak kideek kezkatuta daude krisiak inguruko enpresetan duen eraginarekin eta ondorioz bertako langileek sofrizten ari direnarekin: "krisiaren eraginez nabariak dira Donostia, Hernani, Lasarte-Oria, Usurbil eta Andoaingo enpresetan sortutako ondorioak. Went-Thermik, Cortusa, Inquitex, Marmoles

Onak, Plastigaur, Euskal Mar, Michelin eta Luzuriaga esaterako, baina arazoak dituzten enpresen zerrenda oso azkar luzatzen ari da."

LAB sindikatutik helarazi duten komunikatuan Administrazioetatik krisiaren aurrean hartzen ari diren neurriak salatzen dute: "enplegua, lanpostuak murrizten eta lan baldintzak kaskartzen ari dira. Honen aurrean hartzen ari diren neurriak enpresak eta bankuak babesten dituzte. Garai onak edo txarrak izan, etekinak egon ala ez, erreformak eta neurriak beti langileon kalterako dira".

Komunikabideen jarreraren aurrean ere kritiko agertzen dira: "komunikabideen eraginez, badirudi krisia bankeroena edota patronale-na dela. Baina, agerian utzi behar da besteek sortutako krisiarengatik kaltetuenak langileok gara." •

Gero eta areto gehiago dantzarako

■ Hilabete honetako berrikuntza Abend kafe-antzokia izan da, Obelix, Siglo XX eta Jalgirekin batera Ttakuntronik zirkuituan sartu baita

TXINTXARRI

Lehengo larunbatean *Ttakuntronik*ek berriro ere dantzaleku bihurtu zuen Lasarte-Oria. Lau areto, lau DJ, lau estilo desberdin eta, hau guztia, herritarrak dantzan jartzeko asmoarekin.

Oraingo honetan, ohikoak diren hiru aretoetan, Siglo XX taberna, Jalgi kafe-antzokia eta Obelix tabernan eta berraurkitutako areto batean, Abend kafe-antzokian, antolatuta dira emanaldiak.

Siglo XX tabernan hip hopko old school erritmoen emanaldia eskaini zuen des296 DJak; DJ Ka 100% Gourmetek, berriz, Obelix

taberna hip hop erritmoez bete zuen, eta Aritz Sound Systemek musika beltza, hau da, reggae, rap, funk eta afrosildar doinuak eraman zituen Jalgi kafe-antzokira.

Abend kafe-antzokia

Era berean, berrikuntza handia izan du hil honetako saioak. Izan ere, Abend kafe-antzokiak estreinakoz parte hartu baitu *Ttakuntronik*en areto moduan.

Bertan, erritmo beroak entzun ahal izan ziren *gora! DJ*aren eskutik.

Orokorrean jende ugari bildu zen areto guztietan DJen emanaldiak entzun eta musikaz gozatzera. •



Abend kafe-antzokiak lehenengoz parte hartu zuen, *gora! DJ*arekin.

Erritmo beroak Makulu Ken taldearen eskutik

Lehengo ostiralean, Kultur etxean, *Xpression!* eta Udaleko Gazteria sailak sinatutako hitzarmenaren barruan *Makulu Ken* talde lasarteoriarrak kontzertua eskaini zuen Manuel Lekuona kultur etxeko kafetegian.

Jende ugari hurbildu zen laukotearen kontzertua ikustera. Honek bere erritmo beroak eskaini zituen, musika beltzaren reggae, funk edo afrobeat

taren eragin handiko abestiak. Honela, dantza egiteko aukera izan zuten bertara gerturatu zirenek.

Ezusteko bat ere ekaini zuen laukoteak. Izan ere, Xabi (gitarra eta ahotsa), Unai (baxua eta koroak), Txus (bateria) eta Iñigori (perkusioa eta koroak) Eider eta Itsaso abeslariak batu baitzaizkie. Beraz, hemendik aurrera, *Makulu Ken* seikotea izango da. •

Iruñatik Lasarte-Oriara akrobaziak egitera



Zirika Zirkus taldeak *Nik* egin beharko saioa eskaini zuen lehengo ostiralean Jalgi kafe antzokian.

Loretzu Traketsu Iruñako pailazoak barre algarak sortu zituen ikusleen artean.

Lehenik jende artean eseri zen ikuslearen papera eginez,

artista ez zetorrela eta, berak egin beharko zuela esan eta oholtzara igo zen. Globo batekin lorea eginez hasi zuen ikuskizuna. Publikoko jendea ere gonbidatu zuen berarekin parte hartzera eta hauekin akrobaziak eta depilazio saio bat egin zituen. •

ZERO SETTE

Akordeoi orkestra Leonera

Bosgarren urtez jarraian, Leongo *La Venatoria* elkarteak gonbidatuta Zero Sette akordeoi orkestrak kontzertua eskainiko du bihar, abenduaren 13an, 20:00etan. •

DANTZA

Verdini Dantza taldearen emanaldia bertan behera

Gaur 20:00etarako aurreikusita zegoen Verdini Dantza Taldearen *Argira* emanaldia bertan behera geratu da. •

ERAKUSLEIHO LEHIAKETA

Izena emateko epea luzatu da

Lasarte-Oriako merkatarien elkarteak, Aterpeak eta Lasarte-Oriako Udalak jakin arazi nahi dute erakusleho lehia-ketako izena emateko epea luzatu dela.

Parte hartu nahi duten saltokiek gaur arte dute izen-ematea egiteko, horretarako 637 955 030 edo 943 366 228 telefono zenbakietara deitu beharko dute. Aterpeak eta Udalak parte hartzera animatu nahi dituzte Lasarte-Oriako saltokiak. •

LASARTE-ORIA BIZIRIK

Errauskailuaren aurkako martxa

Lasarte-Oria Bizirik bihar errauskailuaren kokalekura burutuko den martxan parte hartzera animatzen ditu lasarteoriarrak.

Lasarte-Oriako martxa 10:30ean abiatuko da Oken-do plazatik eta Zubietara egingo du. Bertan, Usurbilgo eta Donostiako martxak batu-ko zaizkio eta 11:30ean martxak aurrera jarraituko du errauskailuaren kokalekura arte.

Ibilbidean zehar, baserri-arteak desjabetuko diren lur-raz zientzuk diren azalduko du. •



GABONETAKO TXOKOAK

Goizeko 9:00-13:30
2000tik 2006ra jaiotakoak

Matrikula: abenduaren 17ra arte

Aurten larunbatetan ere bai!!!

Ttakun K.E. Geltoki kalea 4, 943 37 14 48, Amaraun ludoteka, Ola kalea 1, www.ttakun.com, aisia@ttakun.com

Kiroletako agenda

FUTBOLA

Larunbata 13

10:00etan, Ostadar-Behobia (Infantilen Ohorezko maila, kopa) Michelin.

13:00etan, Ostadar-Bergara (Infantil Txiki Kopa) Michelin.

15:30etan, Ostadar-Hernani (Emakumezkoen Liga) Michelin.

17:15etan, Texas Lasartearra-Amaroz (I. Jubenila) Michelin.

15:30etan, Eibar-Ostadar (Kadeteen Ohorezko maila, kopa) Unbe Inf., Eibarren.

16:00etan, Usurbil-Texas Lasartearra (II. Erregionala) Harane, Usurbilen.

17:45etan, Urnieta-Ostadar (I. Jubenila) Urnietan.

Igandea 14

10:30etan, Ostadar-Juventudes de America (II. Erregionala) Michelin.

FUTBOL 8

Larunbata 13

11:30etan, Lasarte BHI-Axular Lizeoa (Infantilak) Michelin.

FUTBOL 7

Igandea 14

12:00etan, Niasa-Corpa-Reformas Gevoralan (III. Maila) Felix Garin 2, Donostian.

ARETO-FUTBOLA

Larunbata 13

18:30etan, Garetxe Lazkao-ISU leihoak (Gipuzkoako Liga, I. Maila) J.M. Barandiaran kiroldegia, Lazkao.

19:30etan, UPV Alava-Aldaz H.K. (Euskal Liga) Judimendi kiroldegia, Gasteizen.

HERRIKO TXAPELKETA

Michelin edo frontoian

10:00etan, Ilargi-IOB H.K.

10:50etan, Danena-Izarra

11:40etan, Oria Txiki-Mayi

12:30etan, Ainhoa-Tragoxka

13:20etan, Epel-Oria Kristaldegia

14:10etan, Obelix-Okela

15:00etan, Jordi-Siglo XX

15:50etan, Lurra XXI-Katanga

Igandea 14

HERRIKO TXAPELKETA

Michelin edo moduloan

10:00etan, Morrison-Viña del Mar

10:50etan, Izkiña-ISU Leihoak

11:40etan, Biyona-Buenetxea

SASKIBALOA

Larunbata 13

16:00etan, Ainhoa-Rte Don Jabugo AIB (Gizonezko seniorrak) Kiroldegian.

PILOTA

Ostirala 12

19:00etan, Goierri-Intza (Eskuz binaka I. Jubenila) Urretxun.

20:00etan, Elordi-Herrigintza-Intza (Eskuz binaka III. Seniorra) Ikaztegiatan.

Larunbata 13

16:00etan, Intza 3-Oiarpe 5 (Eskuz banaka infantila I. Urtea) Michelin.

16:00etan, Lizardi Igeldo 3-Intza 4 (Eskuz banaka infantila I. Urtea) Michelin.

16:00etan, Alde Zaharra 2-Intza 1 (Eskuz banaka infantila I. Urtea) Igeldon.

16:00etan, Intza 2-Oiarpe 7 (Eskuz banaka infantila 2. Urtea) Usurbilen.

17:00etan, Usurbil 2-Intza (Eskuz binaka II. Seniorra) Bergarako udal frontoian.

ATLETISMOA

Larunbata 13

18:00etatik 19:00etara, benjaminen topaketa Michelingo kirol gunean.

Lasarte-Oriako judokak arrakastaz arrakasta

Herriko judokak ez dute ete-naldirik hartzen eta horregatik sarien uza handitzen doa. Oraingoan, azaroaren 29 eta 30ean jokaturako lehiaketan emaitzak helarazi dizkigute.

Roberto Manuel Artola lasarteoriarak Gipuzkoako txapelketako senior mailako zilarrezko domina eskuratu zuen 73 kilo azpiko atalean.

Azaroaren 30an, igandean, Tolosako Usabal polikiroldegian jokatu zen txapelketan, Judo klub Lizardi-Zarautzeko judokak merezizko bigarren postua lortu zuen.

Robertok hilabeteak zera-matzen txapelketa prestatzen eta azkenean finalerako sailkapena lortu zuen igandean. Bertan, Usurbilgo Judo Klube-ko Aitzol Arrospideren aurka lehiatu zen eta iponez galdu zituen urrea lortzeko aukerak.

LOKEko judokak

Oso asteburu interesgarri izan dute LOKEko judokak azaroaren 29an infantil mailako nazioarteko txapelketan parte hartu zuten eta azaroaren 30an, berriz, alebinek Gipuzkoako txapelketako lehenengo sailkapen egunean.

Valladoliden Gaztela eta Leongo infantil mailako II. Nazioarteko Lehiaketan hartu zuten parte. "Oso emaitzak onak lortu genituen" aipatu digu Gorka Aristegi LOKEko entrenatzaileak.

Kiara Tobajasek, Mario Garridok eta Abayuba Gutierrezek brontzezko domina eskuratu zuten. Kiarak bi borroka irabazi eta azken 5 segundotan finalurrekoa galdu zuen, Garridok bi irabazi eta bat galdu eta Abayubak, berriz, hiru irabazi eta bat galdu.

Esteban Martinezek bi borroka irabazi zituen eta



Roberto Manuel Artola, ezkerrean, zilarrezko dominarekin. Arg: Mikel Ponga



LOKEko infantilak Valladoliden lortutako sariekien. Arg: Gorka Aristegi

epailearen erabakia dela eta finalurrekoa galdu eta 5. postua eskuratu zuen.

Bestalde, Josu Olmos, Imanol Gonzalez, Iñigo Matxain eta Unai Giral dok ez zuten zortirik eduki.

"Oso ondo pasa genuen Valladoliden eta benetan gustura gaude egin genuen lanarekin," adierazi digu Gorka Aristegi entrenatzaileak.

Igandean, berriz, alebinek, Haritz Urdangarin, Alex Salasamendi, Fermin Balda, Asier Zubizarreta, Ander Curiel eta Oscar Garrido Tolosan Gipuzkoako txapelketarako lehenengo sailkapen saioan parte hartu zuten.

"Denak klasifikatu ziren eta benetan oso judo polita egiten," aitortu du LOKEko entrenatzaileak. •

Kiroletako oharrak

Intalazioen epe luzeko alokairuak

Kirolen Udal Zerbitzuak Kirol Guneko frontoia, Kiroldegiko pista edo Trinketa 2009 urtean zenbait egun eta ordutan alokatzeko aukera eskaini du.

Abenduaren 21a bitarteko epea ireki da interesatuek udalaren kirol instalazioetako atarian eskaera egin dezaten.

Orduak abenduaren 22an 19:00etan Udalaren Kiroldegian egingo den zozketan banatuko dira; eskaera bakoitzari zenbaki

bat emango zaio (zozketara bertaratu diren eskatzaileei bakarrik). Abonatuek lehenetasuna dute. Zenbakiak atera hala orduak aukeraturiko dira.

Alokairuaren ordainketa, banku bidez helbideratuko da, bi zatitan: lehenengo zatia urtearen lehenengo sei hilekoan eta gainerakoa, bigarren sei hilekoan. Ez abonatuak sarrera ordainduko dute, aparte.

Kirolen Zerbitzuak instalazioa behar izanez gero, aste bat lehenago abisua emango die dagokien jokalariei. Kasu horretan ordaindutako dirua itzuliko da.



Gerriko beltza berria LOKen

Azaroaren 30an, Iñaki Elizalde judokak gerriko beltza eskuratu zuen. "Guretzako beti da poz handia gure ikasleak gerriko beltza lortzen dutenean," adierazi digu Gorka Aristegi entrenatzaileak. 17 urte ditu Iñakik eta LOKEko entrenatzaileak azaldu digunez, "judoka batentzat prozesu bat betetzea da gerriko beltza eskuratzea." Era berean, Iñaki zoriandu eta entrenatzen jarraitzea animatzen du Gorkak. •

VII. Argazki Rallyak baditu irabazleak

■ Epaimahaiak zail izan du irabazleen aukeraketa, argazkien maila handia izan baita

TXINTXARRI

Udazkena gaia izanik, Tomas Fernandez VII. Argazki Rallyko lehiakideek urriaren 23tik 27ra izan zuten argazkiak atera eta Etxarri argazki dendan aurkezteko. Asteazkenean, jakin ziren Argazki Rallyko sarituak Manuel Lekuona Kultur etxeko kafetegian egin zen ekitaldian.

Jesus M. Zaballos Gazteria eta Festetako batzorde burua izan zen sari banaketaren arduraduna. Honela, gazteen mailan sorta onenaren saria Carlos Aizpurua lasarteoriarrak eskuratu zuen eta argazki onenaren saria, aldiz, Donostiara joan zen, Raul Alegre gaztearentzat, hain zuzen ere. Helduen mailan, herritarra den Ricardo Diezek jaso zuen sorta onenaren saria eta Severiano Iglesias billabonatarak, berriz, argazki onenarena.

Epaimahaia honakoek osatu zuten: Esteban Etxarri,

Txema Valles, Olatz San Sebastian Miguel Angel Quintana, Tomas Fernandez eta Jesus M. Zaballos. Lan gogorra izan dutela aitortu zuen Gazteria eta Festetako buruak, "maila handia egon da aurtengo lehiaketan, ez bakarrik argazkien kalitateagatik, baizik eta egin diren konposizioengatik ere."

Honetaz gain, VII. edizio honetan parte hartzea handia izan zela azpimarratu zuen. Izan ere, haurren kategorian 5 partehartzaile egon baitziren eta helduenean, berriz, 25. Sariak banatu ostean, Jesus M. Zaballosek hurrengo urteko lehiaketan partehartzera dei egin zien guztiei.

Erakusketa

Era berean, VII. Argazki Rallyan parte hartu duten argazkien erakusketa ireki zuten. Hauek hilaren 17ra arte egongo dira ikusgai kultur etxeko kafetegian, astelehenetik ostiralerako 18:00etatik 21:00etara. •



Argazkian, Argazki Rallyko sarituak Gazteria eta Festetako buru den Jesus M. Zaballos eta Marisa Zubiri udal ordezkariarekin.



HARATEGIA



URDAITEGIA

**Aurrez prestatutako
janariak**



Geltoki kalea 15, behea • 20160 Lasarte-Oria • Tel.: 943 37 65 85